

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

728

AGINDUA, 2010eko azaroaren 24koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak errabiaren kontra txertatzea borondatezkoa dela jendaurrean agertzen da.

Europar Batasuneko herrialdeetan eta beroien mugakideak diren amorru gaitzaren egoera epidemiologikoa ona denez, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gaitzaren gaur egungo osasun-maila kontuan hartuta, ez da beharrezkoa EAEn txakurrei errabiaren kontrako txertoa jartzea. Nolanahi ere, jende guztia jakitun egon dadin, beharrezkotzat jotzen da jakitera ematea txerto hori jartzea egun borondatezkoa dela.

Ondorioz, eta Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legean, Abere-osasuneko apirilaren 24ko 8/2003 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan eta indarrean dauden gainontzeko arauetan xedatutakoarekin bat etorritz, hauxe

EBATZI DUGU:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak errabiaren kontra txertatzea borondatezkoa dela jendaurrean agertzea. Ondorioz, ez da txertaketakanpaina ofizialik antolatuko gaitz horren aurka.

Bigarrena.— Aurreko puntuan xedatutakoa ez da eragozpena izango Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen II. eta IV. tituluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuan txakurrak jagon, kontrolatu, zentsatu, identifikatu eta erregistratzeko aurreikusten diren neurriak har ditzaten organo eskudunek.

Hirugarrena.— Errabiaren fokuren bat sumatuz gero, neurriak hartuko dira; hain zuzen ere, urriaren 29ko 6/1993 Legearen 9.1 artikuluan eta Abere-osasuneko apirilaren 24ko 8/2003 Legearen II. tituluaren xedatutakoak. Era berean, gaixotasuna jakinarazi egin beharko da, aitortu beharreko abere-gaixotasunei eta horien jakinarazpena egiteko arauari buruzko irai-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

728

ORDEN de 24 de noviembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se da publicidad al carácter voluntario de la vacunación de los perros frente a la rabia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Atendiendo a la buena situación epidemiológica de la enfermedad de la rabia en los países miembros de la Unión Europea y otros países limítrofes; y valorando el nivel sanitario actual de la enfermedad en la Comunidad Autónoma de Euskadi, se considera que no es necesario establecer la vacunación obligatoria frente a la rabia de perros en la CAPV. No obstante lo anterior, se estima que para general conocimiento es pertinente dar publicidad al carácter voluntario que tiene en la actualidad dicha vacunación.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal, Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y resto de normativa en vigor,

RESOLVEMOS:

Primero.— Dar publicidad al carácter voluntario de la vacunación de los perros frente a la rabia en la Comunidad Autónoma del País Vasco. En consecuencia, no se organizarán campañas oficiales de vacunación frente a dicha enfermedad.

Segundo.— Lo previsto en el punto anterior se dispone sin perjuicio de la adopción por los órganos competentes de las medidas de vigilancia, control, censado, identificación y registro previstas en los Títulos II y IV de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, y en el Decreto 101/2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tercero.— En caso de que se detecten uno o varios focos de rabia, se adoptarán las medidas previstas en el artículo 9.1 de la Ley 6/1993, de 29 de octubre, de Protección de los Animales, en el Título II de la Ley 8/2003, de 24 de abril, de sanidad animal, y se procederá a la notificación de la enfermedad en la forma prevista en el Decreto 507/1991, de 24 de

laren 24ko 507/1991 Dekretuan aurreikusitako moduan.

Laugarrena.— Agindu honen aurka aukerako beraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharramunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 24a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

septiembre, sobre enfermedades de animales sujetas a declaración obligatoria y normas para su notificación.

Cuarto.— Contra la presente Orden podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar, asimismo, desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Quinto.— La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.